

# AUZO BIRA

## AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren  
azalpena



## HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

### EREÑOTZU. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-22
	ORDUA	19:15-20:15
	TOKIA	

#### PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
11	8	19

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Amaia Miner, zinegotzia; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Rentería eta Leire Kortajarena.

#### HIZKUNTZA:

Saioa euskara hutsean egin da.

## 1. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta saioan landuko den edukia azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak euskaraz izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

## 2. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Etxebizitzako Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatze plana). Zona honetan:
  - o Marielutsetik Urbietarako malda
  - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
  - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa

Ondoren, bereziki Ereñotzu auzoari dagozkion eskuhartzeak azaldu dira:

- Mugikortasun eta azpiegiturak
- Auzozaintza
- Kutsadura akustikoa
- Zuhaitzen mantenua
- Saneamendua

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaugarrian bizi diren 12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo

dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dionari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Pagoaga: garraioa, zaborra, etxebizitza, eolikoak

Udalak hirigintzaz gain ematen dituen zerbitzuak jarri ditu balioan alkateak. Aurrekontuen artean oreka bilatzea garrantzitsua dela azpimarratu du

### 3. AUZOTARREN EKARPENAK:

HERRI LANAK	
Erdiguneko zuhaitzak	<p><i>Bizilagun batek gogorarazi du erdigunean dauden zuhaitzen (denek badakite ze zuhaitzez ari diren) mantenu faltak arriskua sor dezakeela.</i></p> <p>Udaletik irtenbideen kudeaketarako arazo nagusia lur-sailaren jabego pribatua dela adierazi da. Udala saiatu da lur-saila erosten, baina ez dira adostasunera iritsi. Hala eta guztiz ere, kezka jakitun, zuhaitzen egoeraren jarraipena egiten dela eta momentuz arazorik ez dagoela ikusi da.</p>
Ura bideratzeko zanga	<p><i>Erdigunean, orain gutxi, ura bideratzeko egindako zanga dela eta, konponketa lanak bukatuta ere, oraindik urak ateratzen jarraitzen duela adierazi du.</i></p> <p>Udalak jarraipena emango diola erantzun du.</p>
Añarbek egindako obrak errepidean kalteak	<p><i>Auzotar batek jakinarazi du Añarbe egiten bukatzen ari den obra dela eta, erabiltzen duten errepidearen egoera oso kaxkarra dela. Bukatutakoan, errepidea konponduko denaren gaineko kezka azaldu du.</i></p> <p>Udaletik errepidearen konponketa erreklamatu dutela jakinarazi da. Enpresak bermeak jarrita ditu, obra bukatzean konpontzeko konpromisoa duela, alegia.</p>
Errepidearen egoera kaxkarra	<p><i>Bide nagusitik pasatzen den kamioi kopuru handia dela eta, toki batzuetan bidea ondoratzen ari dela jakinarazi du bizilagun batek. Horrez gainera, bereziki daramaten abiadura handiak, arriskua sortzen duela ere salatu du.</i></p> <p>Udaletik erantzun da errepidearen konponketa Aldundiari dagokiola eta jasotako informazioa helaraziko diola, behar diren konponketak egin ditzan. Auzo-udalak ere erreklamatu du. Eta horrekin batera, segurtasuna bermatzeko neurriak ere aztertzeke konpromisoa hartu du.</p>

INGURUMENA	
Zabor bilketarako puntua	<p><i>Zabor bilketarako herriguneko puntuari dagokionez, auzotar askok bere kezka erakutsi dute, egiten den erabilera okerra dela eta, baita ere horren ondorioz puntua oso zikin bait dago. Giltzapean badago ere, zarraila hautsita egoten da beti. Auzo-udaletik tokia txukun mantentzeko konpromisoa hartu bazuten ere (kontzientziazio lanetan jarraituko dute), Udalari, Garbitaniarekin batera egingo duen hausnarketaren baitan, beste alternatiba batzuetan pentsatzeko eskatu zaio.</i></p> <p>Udaletik erantzun da aukera ezberdinak baloratzen aritu badira ere, zaila dela denentzat egokia den bat aukeratzea. Dena den, Garbitaniarekin batera aukerak baloratzen jarraituko dutela. Eta erabilerari dagokionez, ongi ikusi bada auzo-udaletik kontzientziazioarekin jarraitzeko intentzioa, ardura pertsonalari ere dei egin zaio bilketa arduraz egiteko.</p>
Negozioen zabor bilketa	<p><i>Bizilagun batek adierazi du Garbitaniak negozio moduan identifikatu gabeko erabiltzaile batek atez atekoaren erabilera okerra egiten duela. Hortaz, Udalari eskaera egin dio Garbitaniarekin izatekoa den koordinazio horretan, gai honen inguruan ere hitz egiteko.</i></p> <p>Udaletik jarraipena emango zaio honi.</p>

TOKIKO GARAPENA	
Espazio publiko propioa	<p><i>Auzotar batek gogorarazi du Ereñotzun ez dagoela espazio publiko propiorik. Hori dela eta, gaur egun salgai dagoen eraikin bat, Ereñotzurenzat estrategikoak diren aukerak eskaini ditzakeena. Udalari galdetzen dio erosketaren inbertsioaren aukera baloratu duen.</i></p> <p>Udalak erantzun du legegintzaldi honetan halako inbertsio bat egiteko gaitasunik ez duela; alde batetik, gaitasun ekonomiko faltagatik, eta bestetik, inbertsiotarako mugak ez diolako baimentzen dagoena erosi eta ekipamendu publiko bilakatzeko beharrezkoa den inbertsioa egitea. Gaur egun, espekulazioaren eta interes pribatuen ondorioz, oso zaila da udal batek halako inbertsioa egitea, ez baitu nahikoa baliabide. Horren aurrean, etorri litezkeen proiektu pribatuei baimena ematerako orduan, promotorarekin negoziatu, eta izaera pribatua izango duenaz gainera,</p>

	<p>herriarentzat bideratuko den ekipamendua ere jaso dezan behartzea izan ohi da estrategia. Proposamen bat dagoen unean, auzotarrekin partekatu eta landuko da aukera hau.</p>
<p>Auzozaintza Ereñotzun</p>	<p><i>Auzotarrak gogotsu daude Auzozaintza Ereñotzura iritsiko delako 2026an. Gonbitea luzatu diote antolakuntzari bertaratu eta bertako ezaugarri eta behar bereziak ezagutuz, proiektua egokitu ahal izateko.</i></p> <p>Udalak erantzun du proiektua tokiko errealitatera egokitzeko baldintza pleguetan jasota datorrela. Lizitazio prozesua jada amaituta dago, kontratu berria sinatzeko zain dago.</p>
<p>Etxez etxeko zerbitzua</p>	<p><i>Etxez etxeko zerbitzuaren lizitazioaren berri jakin nahi izan du bizilagun batek.</i></p> <p>Jakinarazi da urtarrilaren 1etik dagoela martxan. Lizitazio berriak zerbitzua auzoaren ezaugarrietara egokitzeko mekanismo berriak jasotzen ditu.</p>

#### 4. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- Atzetik datozen eskaeren jarraipenari lotuta izan dira kezka asko: zuhaitzen egoera, errepidearen egoera eta trafikoa, segurtasuna.
- Horiekin batera, Ereñotzurentzat espazio publiko propio baten beharraz eta hau eskuratzeko aukerez ere mintzat da.
- Orokorrean, herri-gunetik ekartzen diren ekimenak bertako ezaugarrietara egokitzeko beharra ere jarri da mahaiaren gainean.
- Zabor bilketarako puntuaren erabilera okerrak eta ondorioz pilatzen den zikinkeriak ere kezka asko bildu ditu.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Bereziki auzo elkarteekin sortutako partaidetza foroak (eta telefonoa) gogorarazi dituzte, urtean zehar beharrezko ekarpenak egiteko baliagarriak baitira. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

#### 5. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkek, banatu zaien fitxa batean.

- 1) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?**
  - Epeleko auzokide gazte bezala, bertan bizitzen geratzeko gaur egun dauden zailtasunekin Udalak nolabait laguntzeko asmoa duen jakin nahiko nuke.
- 2) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?**
- 3) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke**
- 4) Nola baloratzen duzu auzo bira?**